




## EAEn bizi diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 60k administrazio elektronikoa erabili zuen 2022an

e-Administrazioa enpresetan  
e-Administrazioa lehen sektorean  
e-Administrazioa administrazio publikoetan  
e-Administrazioa eta pertsonak

### e-Administrazioa enpresetan

EAEko establezimenduen % 60k baino gehiagok lortu du prozedura elektronikoa bat administrazio elektronikoen bidez erabat izapidetzea

G.1. Euskal Autonomia Erkidegoan azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. 2000-2021.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

EAEko hamar establezimendutik bederatzik baino gehiagok, % 94,3ak (guztira 150.951 establezimendu), lehen sektorekoak, etxeko zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak izan ezik, administrazio elektronikoa erabili zuten 2021ean<sup>1</sup>, zuzenean edo hirugarrenen bidez.<sup>2</sup> 10 enplegu edo gehiagokoen kasuan % 97,5 izan ziren, 2020an baino ehuneko 1,6 puntu gehiago Eustaten

<sup>1</sup> Administrazio Elektronikoen erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

<sup>2</sup> 2016ko bilketan, izapideak eta prozedurak egin edo informazioa jaso euren zuzenean egiten zituzten establezimenduez gainera, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten establezimenduak ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe administrazio elektronikoa erabiltzen dutenak sartu ziren.

datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa izan da: informazioa eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.


Datuak ditugun azken 22 urteetan, hainbat aldi ikus daitezke: 2000tik 2008ra bitartean, enpresek askoz gehiago erabili zuten administrazio elektronikoa, hots, zortzi aldiz baino pixka bat gehiago handitu zen erabilera, eta, aldi berean, errolda 31.509 unitate baino pixka bat gehiago hazi zen.

2009tik 2013ra, krisi ekonomikoan bete-betean, aurreko aldiko establezimenduen saldo positiboaren zati handi bat galdu zen, 30.123, eta moteldu egin zen administrazioekiko interakzioaren hazkundera Internet bidez: azken bost urte horietan, % 7,3 igo zen. 2013tik 2014ra, 3.410 establezimendu gehiago izan ziren Administrazio Elektronikoaren erabiltzaile, hau da, urte arteko % 3,8ko hazkundera egon zen.

2015eko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta: 25.355 establezimendu gehiago sartu dira (%27,1 gehiago), metodologia-aldaketarengatik neurri handi batean.

2016an, beste 26.173 batu ziren, %22 gehiago, ia erdia, administrazio elektronikoa erabili arren Interneteko konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketarengatik (guztira 14.727, hamar establezimendutik bat). Beraz, metodologia-jauzia baztertuta, hazkundera nabarmena izango litzateke, %9,6koa hain zuzen ere.

G.11 Internet duten establezimenduak, administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez.  
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2021. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa


2016tik 2017ra, igoera % 3,5koa izan zen, 5.097 establezimendu gehiago.

2017tik 2018ra, %1,3 establezimendu gehiago (2.024) hasi zen administrazio elektronikoa erabiltzen. Kopuru hori 2012. urteko datutatik hurbil dago (aipatu aldaketa metodologikoak kontuan hartu gabe). 2013. urtetik aurrera, guztira 165.000 establezimendu inguruk erabili dute, gorabehera (galera) gutxi batzuekin; 2020an 160.500 establezimendu inguru ziren erabiltzaileak. Beraz, administrazio elektronikoen erabilerak izan duen hazkundera garbia da.

2018tik 2021era bitartean, administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen gorakada % 1,7koa izan da;


Beraz, azken 20 urteotan enpresen erabileraren hazkunde handia dela eta, % 100era iristea motelagoa izango delakoan gaude.

G.2. Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2021. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2021. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Lau establezimendutik hiruk baino gehiagok, % 76,1k, beste erakunde batzuk behar dituzte administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko.

Proportzio hori 10 enplegu edo gehiagokoen % 58,3ra iristen da, azken urteotan pixka bat hazteko joera dago.

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2021



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Kontuan izan behar da enpresek eta euren establezimenduek administrazio-kudeaketan zati bat zuzenean egin dezaketela eta, aldi berean, hirugarrenengana jo dezaketela beste kudeaketa batzuk gauzatzeko: 10 enpleguko eta gehiagoko enpresen % 85,5k zuzenean izapidetzen dute, eta establezimendu guztien erdiek baino gehiagok, % 54,7k.

Ziurrenik, erakunde horiek aro digitala baino lehenago hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak oraindik ere elektronikoki egiten dituzte, establezimenduaren tamaina eta ahalmen informatikoak edozein izanda ere.

Establezimenduen eroldaren saldoa nahiko egonkorra izan da azken urteetan; horregatik badirudi administrazio elektronikoaren erabileraren hazkundean garrantzi handia izan dutela aipatutako metodologia-aldaketek, baita administrazio publikoen eta sektore ekonomikoen arteko Internet bidezko harremanen bilakaera positiboak ere.

2020 eta 2021 bitartean, bide elektronikoz egindako BEZaren aitortpenak, ehuneko 0,7 puntu egin dute gora, eta establezimenduen % 78,8k erabili zuten

bide elektronikoa. Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenak 3,8 puntu igo dira eta gizarte-kotizazioenak ia ehuneko bi puntu.

Administrazio elektronikoa erabiltzen den sofistikazio-mailari dagokionez, establezimenduen % 60,2k prozedura elektronikoko bat osorik izapidetzea lortu du, 2020an baino ehuneko lau puntu gehiago. Gogoratu behar da 2011 eta 2017 urteen artean bikoiztu egin zela ehuneko hori, 7 urteko tartean.

Bete diren formularioak administrazioei elektronikoki itzultzeko aukera % 63koa da 2020tik 2021era bitartean. Inprimakiak eta formularioak lortzea ehuneko 0,6 puntu igo da, eta 1,3 informazioa bilatzea.

Eusko Jaurlaritzarekin, Europar Batasunarekin eta beste erakunde batzuekin elektronikoki harremanetan dauden establezimenduak % 7 inguru gehitu dira.

Foru-aldundiekin eta toki-erakundeekin elektronikoki harremanetan dauden establezimenduak ehuneko 3,7 puntu igo dira, eta administrazio zentralarekin harremanetan daudenak ehuneko 2,8 puntu.

Erakundeen rankingaren buruan foru-aldundiak daude (% 86,9), eta gero, administrazio zentrala (% 73,6) eta Eusko Jaurlaritza (% 63,4).

Kontuan hartu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiarekin izapideak egitera eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela izapideak.

Jakina, foru-aldundietan eta administrazio zentralean, hurrenez hurren, zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko nahitaezko izapideen garrantzia nabarmena da.

10 enplegu edo gehiagoko establezimenduei dagokienez, joera ekonomikoa aldatu egin da: 2008 eta 2015 artean establezimenduen % 13,5 galdu ondoren (1.668, guztira), urte horretatik 2021ra % 13,0 eta 1.668 unitate gehiago berreskuratu dira.

2015etik 2021ra, administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimendu horien errolda ia % 22,6 handitu da, 2.481 unitate gehiago.

Administrazio zentrala (administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen % 89,0) 10 enplegu edo gehiagoko rankingaren buruan daude, 2020arekin alderatuta, ehuneko 4,2 puntu gehiagorekin. Ostean foru-aldundiak daude, % 88,5. Eusko Jaurlaritzarekin sei establezimendutik bost jartzen dira elektronikoki harremanetan, % 83,2.

Europar Batasunak ere bere mailari eusten dio, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen % 22,7an hain zuzen ere.

Toki-erakundeek ehuneko 2020ko balioetan mantentzen dira, hots, erabiltzaileen % 50,3.


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2021. %

	Guztira											Eusko Jaurlaritza											Foru aldundiak										
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUJTE</b>	47,2	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	91,0	93,0	93,5	92,1	94,0	34,3	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	48,7	54,2	51,3	59,1	63,4	39,4	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	83,5	84,1	86,6	83,8	86,9
Informazioa lortzeko	41,7	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	66,5	70,0	68,2	69,5	70,9	30,8	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	41,2	42,6	41,6	44,4	47,1	32,1	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	50,9	55,7	56,0	55,7	57,6
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	39,3	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	65,1	67,4	64,7	67,2	67,8	24,9	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	36,7	36,7	34,3	40,7	42,9	30,1	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	51,4	54,9	53,4	53,3	55,1
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	32,0	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	55,4	57,5	58,8	58,0	63,0	19,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	29,8	30,8	30,8	34,9	42,3	24,3	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	42,1	46,5	45,8	45,8	48,0
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	25,3	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	50,3	55,2	52,1	56,2	60,2	13,6	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	25,2	31,8	26,6	32,1	37,8	18,0	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	36,4	39,3	38,2	41,5	44,9
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	6,0	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	15,8	17,3	19,3	19,1	20,1	3,2	2,8	2,9	2,9	4,4	4,5	7,3	8,0	9,8	10,2	10,6	3,1	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	8,7	9,3	10,2	10,5	11,2
Langileen pertsonen koitazio sozialak adierazteko	17,3	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	57,5	61,1	64,6	65,6	67,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zergaren adierazpenarako	21,3	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	57,1	56,9	61,0	57,3	61,1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	18,7	28,2	25,2	25,5	40,3	50,3	49,3	50,0	55,7	50,0	55,0
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenarako	25,1	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	73,3	74,4	79,4	78,1	78,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	22,3	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	67,7	67,9	73,9	70,9	73,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,4	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	11,6	12,7	11,5	12,4	12,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,9	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	7,5	10,3	11,4	14,4	12,2	0,6	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	3,0	1,3	7,0	10,6	7,7	0,9	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	3,6	7,0	3,5	3,4	3,6


TAB. 4.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2021. % (Jarraitu)

	Toki-erakundeak											Administrazio Zentraia											Europar Batasuna eta beste batzuk										
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUJTE</b>	20,1	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5	26,5	29,7	27,9	32,1	33,4	28,6	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	67,6	72,3	71,8	71,6	73,6	6,0	5,1	4,9	6,2	7,4	7,2	8,8	9,8	10,4	8,3	8,9
Informazioa lortzeko	17,7	20,0	20,7	20,3	19,2	24,7	22,6	25,8	22,5	25,6	27,5	18,9	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	22,8	25,8	28,2	27,2	26,1	5,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6	6,9	7,0	7,5	5,6	6,5
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	13,1	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0	18,0	20,3	19,1	22,3	22,6	15,4	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	19,6	20,5	21,4	21,7	22,2	3,3	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5	4,3	4,6	5,1	3,4	3,8
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	8,1	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7	13,7	15,8	16,2	18,5	20,2	12,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	16,5	18,5	19,2	18,8	20,3	2,3	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8	3,2	3,4	3,9	2,7	3,2
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	5,7	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8	9,8	11,4	12,8	16,1	18,2	9,5	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	14,7	16,5	17,1	19,0	19,2	1,7	1,5	1,5	1,7	1,7	2,0	2,6	2,9	3,3	2,2	2,4
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,6	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6	2,3	3,0	4,4	4,3	5,0	2,5	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	4,6	5,4	5,4	6,1	5,1	0,5	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0	1,2	1,1	1,5	1,0	0,8
Langileen pertsonen koitazio sozialak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	17,0	26,8	28,1	27,8	43,3	56,1	56,9	60,3	64,0	64,7	67,0	0,5	0,4	0,3	0,5	1,2	0,9	0,7	0,9	1,2	1,1	0,9
Sozietate-Zergaren adierazpenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4,7	7,0	11,0	11,1	9,5	17,1	11,7	11,6	10,0	12,6	10,3	0,3	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5	0,3	0,2	0,3	0,4	0,2
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5,6	7,2	13,1	11,5	9,5	18,1	10,2	13,0	11,2	13,3	9,7	0,2	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7	0,3	0,6	0,2	0,5	0,5
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4,4	4,5	4,7	5,2	9,1	8,8	11,1	12,1	10,9	11,9	11,9	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	1,5	0,8	0,9
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,2	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,7	0,8	1,0	1,4	1,2	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	1,3	2,3	1,3	1,5	1,9	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,3	0,3	0,5	0,6	0,4	0,7

G.1.1.5.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2021. %




G.1.1.5.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2021. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

G.4.2 Evolución de los establecimientos, total y de 10 o más empleos, y de los que han utilizado la administración electrónica por tipo de administración. C.A. de Euskadi. 2020-2021. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

## e-Administrazioa lehen sektorean

Lehen sektoreko establezimenduen erdiak baino gehiagok elektronikoki kudeatu zuen BEZa 2022an, 2018an heren batera ere ez zen iristen proportzio hau.<sup>3</sup>

2012an administrazio elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2. Igoera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenengoz, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jardura nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan Interneten garrantzia 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

<sup>3</sup> Administrazio elektronikoen erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jaso zen urtea,

urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi aldaketa metodologikogatik: 2015etik aurrera, jardura nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jardura hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarren bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.




2015etik 2018ra, hazkundera garrantzitsua da: % 35,2tik % 85,1era igaro da establezimendu guztietan, eta % 78,8tik % 98,5era 10 enplegu eta gehiagokoetan.

Administrazio publikoek zenbait prozedura eta izapidetan ezarritako online izapidetzeko nahitaezkotasunak, hirugarrenen tramitazioa eta bitartekaritza errazten duten APP-en garapenak, aipatutako igoerak justifikatzeko azalpen onargarrienetako batekin agertzen dira, eta, gainera, 2018an e-Administrazioaren erabiltzailetzat hartzen dira internautak ez direnak (hirugarrenen bidez ere izan zitezkeen), eta hori ez zen gertatu 2015ean.<sup>4</sup>

2018tik 2022ra egonkortu egin da hazkundera: % 85,1etik % 83,8ra igaro da establezimendu guztietan, eta % 98,5etik % 92,9ra 10 enplegu eta gehiagokoetan.

Zuzenean izapidetzen duten establezimenduek gora egin dute, 2018ko % 40,9tik 2022ko % 42,4ra, eta ehuneko 5,6 puntu jaitsi dira hirugarrenen bidez izapideak egiten dituztenak.

G.5.1 Lehen sektoreko establezimenduek administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak, 2022an, 141 ustiatetik osatutako klub murriztua ziren; 10 kasutik ia 9tan (% 87,0) kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten beren administrazioko izapideak egiteko; 2018an baino ehuneko 1,7 puntu gutxiago

<sup>4</sup> 2016ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2015), ez zitzaien administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko galderarik egin Internetera astean gutxienez behin konektatu ez ziren pertsonen. 2019ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2018) ez zen beharrezkoa Internetera konektatzea e-Administrazioaren erabiltzaile gisa hartzeko.

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2022.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

2022an, lehen sektorea batez ere foru-administrazioarekin jarri da harremanetan bide elektronikoa erabiliz: 5 establezimendutik ia 4 (% 78,6). Beste aukerak dira, Administrazio Zentrala (% 55,3) eta Eusko Jaurlaritza (% 45,5). Sektore horretan, alabaina, administrazio elektronikoaren bidez harremanak edukitzeko azken aukerak toki-administrazioa (% 19,3) eta Europar Batasuna (% 5,1) izan ziren.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten da 10etik 9k izapide elektronikoak proportzio berean egiten dituztela foru-administrazioekin eta Administrazio Zentralarekin; % 79,4k autonomia-erkidegokoarekin eta % 26,2k toki-administrazioarekin.

G.5.3.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

G.5.3.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Lehen sektoreko establezimenduen eta gainerako sektore ekonomikoen arteko aldea murriztu egin zen 2018an administrazio publikoekin elkarrengaitzeko orduan, baina bien arteko aldea handitu egin da berriro 2022an. 2022ko inkestatik eratorritako datuen arabera, lehen sektoreko establezimenduen % 83,8k elektronikoki elkarrengaitzen du, eta % 94k gainerako sektore

ekonomikoetan. 2018an, establezimenduak % 93 ziren guztira, eta lehen sektorekoak % 85,1.

TAU 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022. %


	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
<b>HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE</b>	<b>83,8</b>	45,5	78,6	19,3	55,3	5,1	<b>92,8</b>	79,0	90,6	26,1	90,7	10,2
Informazioa lortzeko	49,0	31,6	42,5	16,5	15,3	1,9	<b>78,8</b>	69,9	69,2	23,7	44,5	5,1
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	40,7	22,4	35,0	8,6	7,3	1,1	<b>81,9</b>	67,4	71,8	21,4	44,4	4,3
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	35,5	20,8	27,5	5,8	5,5	0,9	<b>80,3</b>	62,8	69,9	22,8	45,7	2,8
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	30,0	16,8	21,0	4,2	5,6	0,9	<b>71,0</b>	63,1	52,3	19,6	40,8	1,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	7,8	2,7	3,6	1,6	2,0	0,6	<b>19,8</b>	10,9	14,3	11,7	3,8	0,6
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	48,2	-	-	-	48,0	0,2	<b>87,9</b>	-	-	-	87,9	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	25,1	-	22,1	-	3,4	0,1	<b>62,7</b>	-	59,2	-	8,1	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	57,8	-	55,3	-	1,9	1,0	<b>83,0</b>	-	79,5	-	7,4	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	4,2	-	-	-	3,6	0,6	<b>17,5</b>	-	-	-	16,1	3,7
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	21,5	2,8	14,4	0,5	4,4	1,7	<b>11,2</b>	4,4	6,0	-	1,0	1,2

% 48,2k Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzen dituzte –2018an baino ehuneko 18,7 puntu gehiago–, eta % 58 inguruk BEZa kudeatzen du –2018ko balioaren ia bikoitza –.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustategien egoera oso bestelakoa da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta; ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen da. Izan ere, 2022an, lehen sektoreko establezimenduen % 92,8k erabiltzen zuen administrazio elektronikoa, gainerako sektore ekonomikoan, aldiz, % 97,5k.

Gizarte-kotizazioetan eta BEZaren aitortzean, 10 enplegu edo gehiagoko lehen sektorearen estratua ehuneko zazpi puntu handiagoa izan zen gainerako sektoreetako estratu berarekin alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko eta zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko: gainerako sektoreen ehuneko hamahiru puntu gehiagok erabili zuen administrazio elektronikoa, lehen sektorearekin alderatuta.

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guzтира eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS



## e-Administrazioa eta administrazio publikoak

**Eusko Jaurlaritzarekin harreman elektronikoa duten establezimendu publikoen ehunekoak pandemia aurreko balioak berreskuratu ditu.**

2016an egin zen lehen informazio-bilketa. Laginketa berezia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietako establezimenduentzat<sup>5</sup>.

IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen. Gogoratu behar da enpresei zuzenduta dagoen Informazioaren gizarteari buruzko inkestarako erabiltzen den galdetegi bera erabiltzen dela, eta bilketa aldi berean egiten dela.

IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen. Gogoratu behar da enpresei zuzenduta dagoen Informazioaren gizarteari buruzko inkestarako erabiltzen den galdetegi bera erabiltzen dela, eta bilketa aldi berean egiten dela.

2021ean, administrazio publikoen establezimenduak 4.160 ziren, eta horietatik 2.122k 10 enplegu edo gehiago zeukaten.

2021ean, hamar establezimendutik ia bederatzik tramiteren bat edo kontsultaren bat egin zuten Interneten administrazio publikoen atarietan, % 89,9k, 10 enplegu edo gehiago dituztenetatik oso hurbil, % 93,4k.

Establezimendu publikoen % 84,5ek informazioa izapidetzen edo bilatzen dute Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoarekin, hauek COVID-19aren aurreko garaitik gertu dauden balioak dira. Gainerako administrazioen balioek ere gora egin dute aurreko urtearekin alderatuta, foru-aldundiena izan ezik ( % 58,5). Horrela, administrazio zentrala % 70,4an kokatzen da, toki-erakundeena % 59,5ean eta Europar Batasuneko balioa % 30,9ra igotzen da.

2020 eta 2021 bitartean Eusko Jaurlaritzak (% 8,2) eta toki-erakundeak (% 3,4) izan dira, administrazio elektronikoaren bidezko trafikoa hobetu dute gehien. Beherakada bakarra foru-aldundiena izan da, % 1,2 gutxiago 2020arekin alderatuz gero.


<sup>5</sup> Eustat. Fitxa metodologikoa.

[https://eu.eustat.eus/document/esia\\_e.html](https://eu.eustat.eus/document/esia_e.html)

- Administrazio Zentrala
- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak
- Mankomunitateak eta partzuergoak
- Udalerrien elkarteak eta kuadrillak
- Toki-erakunde txikiagoak
- Erakunde autonomiadunak
- Beste entitate publiko batzuk (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)
- Sozietate kapitalaren gehiengoa administrazio publikoarena duten merkataritza-sozietateak
- Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea
- Etxeen zerbitzura lan egiten duten eta irabazi asmorik ez duten fundazioak eta erakundeak, administrazio publikoak baldin badu partaidetzaren gehiengoa.


10 enplegu eta gehiagoko erakunde publikoen establezimenduen artean, 2020tik 2021era Europar Batasuna eta beste batzuk izan dira, % 4,5eko hazkundearekin, datuak gehien hobetu dituztenak. Beste muturrean daude foru-aldundiak, administrazio elektronikoaren bidezko trafikoaren ehunekoa ia ez baita aldatu aurreko urtearekin alderatuta.

G.21.a Administrazio Publikoko establezimenduen, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2020-2021. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI – Administrazioa

G.25 Administrazio Publikoen establezimenduen administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2021.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Administrazio publikoetako establezimenduak gainerako establezimenduekin alderatuta bereizten dituen elementuetako bat honako hau da: hirugarren pertsonak edo erakundeak gutxiago erabiltzen direla administrazio elektronikoa kudeatzeko.


la-ia establezimendu publikoen % 20k hirugarrenen laguntza behar izan zuen administrazio-kudeaketa bat egiteko, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen artean balio hau apur bat apalagoa da (% 19,4). 2020arekin alderatuta, ehuneko hiru puntu egin du gora beste erakunde publiko batzuekin elektronikoki kudeatzeko laguntza behar duten establezimenduen taldeak – guztizkoak –.

G.22.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2021.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa


G.22.b. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2021.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa



G.24 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2021. %



Establezimendu publikoek e-Administrazioaren eskaintzari dagokionez gehien erabiltzen dituzten elementuak hauek izan ziren: informazioa bilatzea (% 80,6) (nahiz eta ehuneko 3,2 puntuko jaitsiera izan zuen iaztik), formularioak deskargatzea (% 76,4), betetako formularioak itzultzea (% 74,0) eta prozedura baten izapidetze osoa (% 69,5).

Beste izapide edo zerbitzu batzuen kudeaketa pandemia aurreko balioetara bueltatu zen, eta zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteari eta sozietateen gaineko zergaren aitortpenari eutsi egin zitzaion.

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2021. %

	Guztira						Eusko Jaurlaritza						Foru aldundiak					
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	87,7	92,8	92,1	93,0	89,9	89,9	76,3	83,1	82,9	84,8	76,3	84,5	57,1	64,4	63,0	64,3	59,7	58,5
Informazioa lortzeko	82,2	89,4	89,0	88,5	80,6	80,6	72,2	79,3	78,0	78,8	72,7	70,9	50,9	57,9	56,7	58,0	56,1	51,3
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	79,2	85,8	82,6	81,6	76,4	76,4	67,4	74,5	73,0	72,8	66,0	66,6	49,2	54,5	52,5	51,5	48,0	45,6
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	77,9	79,3	78,7	77,0	74,0	74,0	66,3	67,2	69,9	69,1	61,6	68,6	45,1	47,8	48,9	48,8	44,5	45,0
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	64,9	61,5	69,9	74,3	69,5	69,5	50,2	51,5	59,5	58,9	55,9	57,7	30,8	34,7	37,9	42,5	40,9	40,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	14,0	10,8	19,8	26,3	23,2	23,2	10,0	7,1	12,7	17,5	15,0	15,2	3,6	3,7	6,8	8,0	6,6	5,6
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	43,3	50,3	50,1	56,7	53,5	53,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	23,8	24,8	27,2	30,0	30,8	30,8	-	-	-	-	-	-	20,8	22,7	24,0	24,4	23	25
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	29,4	29,2	32,4	36,6	37,3	37,3	-	-	-	-	-	-	26,6	28,1	28,5	31,2	30	32
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,3	4,9	6,8	9,2	8,3	8,3	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	6,5	8,6	7,7	7,4	7,9	7,9	2,2	5,6	4,2	3,7	11,2	6,5	2,9	2,9	3,5	3,4	2,9	1,8

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2021. % (Jarraip.)

	Toki-erakundeak						Administrazio Zentrala						Europar Batasuna eta beste batzuk					
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	42,3	53,0	60,4	61,7	56,1	59,5	61,9	67,8	69,3	72,3	69,4	70,4	29,2	38,4	34,1	36,9	29,8	30,9
Informazioa lortzeko	39,9	49,0	54,9	57,7	52,9	54,8	46,4	55,3	53,9	57,1	53,7	53,5	24,9	31,5	26,9	31,3	24,7	25,3
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	30,9	36,9	41,6	45,5	38,5	42,9	41,7	47,2	44,9	48,1	47,0	46,0	19,5	25,4	24,6	25,4	19,7	19,7
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	25,3	29,3	35,0	39,3	35,9	42,9	36,5	42,4	42,6	45,1	44,9	44,9	15,7	20,5	19,9	22,6	17,4	19,6
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	12,9	16,9	20,5	22,8	22,5	27,8	29,1	32,7	34,7	38,4	39,7	37,8	8,8	14,8	16,2	16,7	14,0	14,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,0	1,3	4,8	5,0	3,8	4,4	3,4	3,1	9,0	12,0	11,9	9,0	1,8	1,1	4,6	5,0	4,1	2,8
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	-	-	-	-	-	-	42,3	48,4	49,9	56,3	53,7	53,5	1,4	1,9	0,2	1,5	0,6	0,7
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	-	-	-	-	-	-	3,4	2,1	3,6	6,0	8,2	6,8	0,2	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	-	-	-	-	-	-	3,2	1,5	4,1	5,7	6,3	6,4	0,2	0,0	0,1	0,3	0,0	0,0
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	-	-	-	-	-	-	5,1	4,6	6,8	8,9	8,3	8,3	0,2	0,2	0,0	1,0	0,1	0,5
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,1	0,0	2,7	2,8	3,2	4,1	3,0	4,0	3,8	3,3	3,6	4,3	0,5	0,3	0,6	0,7	0,5	0,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarte-erantzukizun inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

Azpimarratzekoa da, halaber, ehuneko bi puntu baino gehiagoko gorakada nabarmena izan zuela administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeak, eta, ondoren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenak 2020an baino ehuneko 1,7 puntu gehiago lortu zituen.

Azken sei urteak kontuan hartuta (eskuragarri dagoen serie osoa hartzen du), igoera nabarmenak Gizarte Segurantzari egindako adierazpenetan (10,2 puntu), lizitazio-prozeduren izapidetze elektronikoa (ehuneko 9,2 puntu gehiago), eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenetan (7,9 puntu gehiago) gertatu dira.

Oraindik ere ikusten da izapidetzen den erakunde mota guztietan jarduera ohikoena informazioa bilatzea dela, Eusko Jaurlaritzarekin % 70,9 izatetik Europar Batasunarekin eta beste administrazio batzuekin % 25,3 izatera. Urteko aldakuntza desberdina izan zen erakundearen arabera: foru-aldundiek ehuneko 4,8 puntuko beherakada izan zuten, toki-erakundeek, aldiz, ia 2 puntuko hazkundera.

Formularioak deskargatu eta administrazioetara itzultzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da gainerako erakundeek dagokienez: % 66,6 eta % 68,6, hurrenez hurren. Gainerako erakundeetan, % 45,6 eta % 42,9 arteko gorabeherak daude aipatutako kudeaketetan.

Izapidetze osoa elektronikoki egiteari dagokionez, nabarmentzekoa da erakundeen % 57,7k Eusko Jaurlaritzarekin egiten duela, % 40,6k foru-aldundiekin eta % 37,8k administrazio zentralarekin. % 27,8k baino ez du lortzen tokiko erakundeekin. 2020tik 2021era bitartean, beherakada handiena (ehuneko 1,9 puntu) administrazio zentralari dagokio, ondoren, foru-aldundiei (0,3). Gainontzeko erakundeek eboluzio positiboa izan dute.

Langileen kotizazioen aitortpena erakundeen % 53,5k egiten du, eta azken urtean ehuneko 0,4 puntu jaitsi da.

Establezimendu publikoen ia herenak baino gutxiagok (% 30,9) informazioa jaso edo izapideak egiten dituzte Europar Batasunarekin eta beste administrazio batzuekin; ehuneko 1,6 puntu egiten du gora azken urtean informazioa bilatzen duen kolektiboak. Zazpiren batek, % 14,6k, prozedura bat osorik izapidetzea lortu du, 2020ko balioak mantentzen dira.




## e-Administrazioa eta pertsonak

2022an, EAEn bizi ziren 16 eta 74 urte bitarteko bost pertsonatik hiruk administrazio elektronikoa erabili zuten, 2009an halako bi.

Internet bidez administrazio publikoekin harremanak dituzten ia 65.000 emakume gehiago daude gizonak baino, azken 20 urteetako alderik handiena.

EAEn bizi diren 16-74 urteko 974.200 pertsonak erabili zituzten azken 12 hilabeteetan (2021eko lehen hiruhilekoaren eta 2022koaren artean)<sup>6</sup> administrazioek herritarrekin elkarreragiteko eskaintzen dituzten aukeretako batzuk, hau da, guztien % 60,0.

G.6 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2022, azken 12 hilabeteetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2022. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoaren erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi da. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundea internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3

<sup>6</sup> 2003tik 2008ra bitartean, IGIFek urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan jasotzen zuen informazioa; beraz, administrazio elektronikoaren erabilerari emandako erantzunerako erreferentziako hiruhilekoa inkesta egiten zen urtean sartzen zen (azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen da). 2009tik aurrera, informazioa urteko lehen hiruhilekoan jaso da; hortaz, erabileraren erreferentzia-aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Inkesta egin zen urtea kasu guztietan adierazten da. 2015ean, bilketa-aldia urtearen lehen erdi osora zabaldu zen; horrenbestez, azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen denez, denbora-erreferentzia 2014ko 4. hiruhilekotik 2015eko 1. hiruhilekora bitartekoa da. 2016az geroztik, administrazio elektronikoaren erabileraz galdetzeko aldia azken hamabi hilabeteak dira. 2016tik aurrera, eskatutako Administrazio Elektronikoaren erabileraren aldia azken hamabi hilabeteetan kokatzen da, eta bilketa urteko lehen hiruhilekoan egiten da.

Aintzat hartu behar da azken hiru hilabeteetan Interneten sartu diren pertsonen galdetzen zaiela administrazio elektronikoaz.

administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua.


2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-Administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.

2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.


Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak » biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak analizatzea.

2021etik 2022ra bitartean, e-Administrazioko zifra absolutuen hazkundea 60.000 erabiltzailekoa izan zen. Internauten kopurua % 0,9 igo zen bitartean, administrazio elektronikoen erabiltzaileena, % 12,3.

G.7 Azken 3 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2022, azken 12 hilabetetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2022. %



G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2022. Δ%



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak – IGIF

Sexua kontuan hartuta, eta internauten edo administrazio elektronikoa erabiltzen duten biztanleen ehunekoaren arteko aldea gizon eta emakume guztiekiko, hurrenez hurren, kalkulatu bada, gorabehera handiko aldiak egon arren, 2006 eta 2013 artean, alde hori murrizteko joera mantso eta argia ikusten da.

Azken urte horretatik aurrera, internauten eta erabiltzaileen genero-arrailek murrizteko joera argia erakutsi dute.

2003an, internauten arraila 6,2 puntu negatibora heldu zen, eta 2018an -2,5ean geratu da. Zenbatespen lineala erabiliz gero, hau da, ausazko aldakuntzak alde batera utzita markatzen bada joera, 2003ko 6,2 puntu negatiboetatik ia 3 puntu negatibotara pasatu zen.


Azpimarratu behar da internauten artean arrail handiagoa dagoela administrazio elektronikoa erabiltzaileen artean baino. Horrek administrazioekin beste kanal batzuen bitartez harremanetan jartzean pertsonen artean izaten den egoera bat berresten du: emakumeak gizonak baino maizago arduratzen dira administrazio-kudeaketaz.

Izan ere, kopuru absolututan, administrazio elektronikoa erabiltzen duten emakume baino gizon gehiago zenbatu ditu 2022ko inkestak: 439.600 emakume eta 427.800 gizon administrazio publikoekin harremanetan jartzen dira internet bidez. Zifra hau bi sexuen arteko alderik handiena da termino absolutuetan azken 20 urteetan.

Muga 2017an gainditu bazen ere, 2020an handitu egin da internauta gizonen eta emakumeen arteko alde absolutua: aipatutako lehen urtean 22.700 emakume internauta gehiago zenbatu ziren gizonak baino, 2021an 15.200 gehiago eta 2022an 40.800 gehiago.


Joerak eskaintzen duen estimazio linealari kasu eginez gero, 2003an -3 puntuko aldea hautematen da (internauten kasuan dagoenaren erdia) eta 2019an emakumezko eta gizonezko erabiltzaileen tasak berdintzera iritsi ziren, 2020an, berriz, emakumeak gehiago izan dira eta 2021ean eta 2022an mantendu egin zen. Beraz, datu horiekin, desagertutzat jo daiteke administrazio elektronikoa erabiltzen duten 16 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean dagoen genero-aldea.

G.12.a Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten 16-74 urte bitarteko biztanle internauten genero-arraia. Joerak. EAE. 2003-2022. E.P.%




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten edo Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruaren diferentzia, sexuaren arabera. EAE. 2003-2022. Milak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.13. Administrazio Elektronikoa azken hiru hilabeteetan erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 2003-2022%



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Inkestaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, azken urteotan nolabaiteko egonkortasuna duena, herritarrek elkarreragiten duten administrazio motan datza.

Baieztatu daiteke 2022an e-Administrazioa erabiltzen duten lau pertsonatik hiruk, % 75ak, Eusko Jaurlaritzarekin eta bere ingurune instituzionalarekin<sup>7</sup> egiten dutela; hau da, 730.000 pertsona, 2021an baino 32.100 pertsona gehiago.

Foru-aldundiak %45,9 lortu dute (447.400 erabiltzaile). 2021eko datuekin alderatuta, administrazio elektronikoa erabiltzen duten erabiltzaileen ehunekoa handitu zuten erakunde bakarrak izan ziren ( % 15,6 gehiago).

Toki-erakundeek % 23,8 lortu dute, eta 232.100 pertsona daude eurekin harremanetan elektronikoki.


Administrazio zentralak e-Administrazioko erabiltzaileen % 19,7 biltzen ditu, hau da, 191.500 pertsona.

Europar Batasunak eta beste administrazio publiko batzuek % 1,6 biltzen dute, hots, 16.000 erabiltzaile.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoren batera Internet bidez formularioak bidali zituzten biztanleen ia % 4k hirugarren pertsonen bidez egin zuten, 2021an baino ehuneko 1,5 puntu gutxiago.

<sup>7</sup> Eusko Jaurlaritzan sartzen dira haren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-sektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak<sup>8</sup>.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Alde batetik, azpimarratu behar da 2022an (edozein motatako webguneei)<sup>9</sup> egindako aipamen guztien guztien %11,6 edozein administrazioen atari publikoei dagozkiela; hortaz, ehuneko 4,9 puntuko jaitsiera egon da 2021 urtearekin alderatuta.

Edozein espazio-eremutako atari publikoei egindako bost aipamenetatik lau baino gutxiago — % 78,2— euskal administrazioei eta sektore publikoari dagozkio; ehuneko 5,5 puntu gutxiago aurreko urtearekin alderatuta.

Oro har, EAEko administrazioen eta sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak soilik aintzat hartuta, ikusten da % 57,1 EAEko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkiela, aurreko urtea baino ehuneko 14,8 puntu gutxiago. Kopuru horretatik, % 24,4 euskadi.eus webguneari eta hari lotutako atariei dagozkie; %29,3, berriz, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei.

Foru-aldundien atariak EAEko sektore publiko osoko aipamenen % 6,9 eta udalerrikoen % 3,8 biltzen dituzte. Unibertsitate publikoak (EHUK) EAEko atari publikoen aipamenen % 21,2 jasotzen ditu, eta UNEDek % 1,2.

2021 urtearekin alderatuta, ehuneko 15,4 puntu egin dute behera Eusko Jaurlaritzaren atarien aipamenak, eta 2,1 hazi dira erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen aipamenak.


<sup>8</sup> IGIFen galdeketa, bisitatutako azken 5 webguneak biltzen dira, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonen erantzuten dute.

<sup>9</sup> Guztizko kopurutik ezabatu dira gizarte-sareei (Facebook, Twitter, YouTube), bilatzaileei (Google, Yahoo...) eta bat-bateko mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak, zeinak bildutako guztien % 51,9 izan baitira 2019an.




Foru-aldundien kasuan ehuneko 1,6 puntu jaitsi dira aipamenak eta 2,7 udalen atarientak.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2022. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2022. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF



## **E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKAK**

*EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN KONTZEPTUEN GLOSARIOA](#)*

*EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEN GAINEKO ESTADISTIKA ESPE](#)*

*EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN BAROMETROA. BEA](#)*

*[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. FAMILIAK.IGIF](#)*

*[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA - ENPRESAK. IGIE](#)*

*[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA ADMINISTRAZIOAN. IGIA](#)*

*[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - LEHEN SEKTOREA.IGILS](#)*

*[BESTE ITURRI BATZUK](#)*

